

2016/17  
IKASTURTEA

# Herri Ametsa Ikastolako TUTORETZA EKINTZA PLANA 2016-2017



**K E I**  
Kalitate Egitasmo Integratua



**Herri Ametsa Ikastola**

Guardaplata 28  
Donostia  
Tfn-943 393520

[herriam@ikastola.euskaraz](mailto:herriam@ikastola.euskaraz)  
[www.herriametsa.euskaraz](http://www.herriametsa.euskaraz)





# TUTORETZA EKINTZA PLANA

**Herri Ametsa Ikastola**

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## AURKIBIDEA

<b>1 SARRERA: TUTORETZAREN DEFINIZIOA</b>	<b>2</b>
<b>2. TUTORETZA PLANAREN ATALAK</b>	<b>3</b>
<b>3. TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO GAITASUNAK</b>	<b>3</b>
<b>4. HIRU TUTORETZA ESPAZIOEN DEFINIZIOA</b>	<b>7</b>
4.1 ZUZENEAN IKASLEEKIN	7
4.2 IRAKASLEEKIN BANAKA ETA IRAKASLE-TALDEAREKIN	7
4.3 FAMILIA EDO LEGEZKO ARDURADUNEKIN	8
<b>5. TUTORETZA ESPAZIO BAKOITZEKO HELBURU OROKORRAK</b>	<b>8</b>
5.1 IKASLEEI LOTUTA	8
5.2 IKASLE-TALDEAREN IRAKASLEEI LOTUTA	9
5.3 FAMILIEI EDO TALDEAREN TUTOREEI LOTUTA	10
<b>6. TUTORETZAREN HELBURU OROKORRAK</b>	<b>11</b>
6.1 ORIENTAZIO-ARLOAREN EDUKI MULTZOAK	13
<b>7. TUTORETZAREN ANTOLAKETA: HELBURUAK LORTZEKO ILDO NAGUSIAK</b>	<b>16</b>
7.1 OINARRIZKO PUNTUAK	16
7.2 TUTORETZAREN PROGRAMAZIOA	16
7.3 TUTORETZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	17
<b>8. TUTORETZAREN KOORDINAZIOA ETA ARDURADUNAK</b>	<b>18</b>
<b>9. TUTORETZA SAIOAK</b>	<b>18</b>
9.1 IKASLEEKIKO	18
9.2 IKASLE TALDEAREKIKO	18
9.3 FAMILIAREKIKO HARREMANAK	19
<b>10. TUTORETZA PLANAREN EBALUAZIOA</b>	<b>21</b>



# TUTORETZA EKINTZA PLANA

## Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## 1. SARRERA: TUTORETZAREN DEFINIZIOA

Herri Ametsaren heziketa-proiektuaren barruan, tutoretza-plana da ikasleen eskolatzeko-aldi osoan orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzeko egitura. Oinarrizko gaitasunak lortzea da orientazio eta jarraipen ekintza horien helburua.

Tutoretza-lanaren helburua da ikasleak bere burua ezagut dezala eta onar dezala, sozializazio-prozesua hobe dezala, erabakitzen eta ikaskuntza-arazoak konpontzen ikas dezala, eta bere proiektu pertsonal eta profesionalaren protagonista senti dadila.

Herri Ametsa Ikastolan Irakasle-taldeak eta Orientatzaileak burutzen dute Tutoretza Ekintza Plana dokumentua.

Horrez gain, tutoreari dagokio tutoretza-plana garatzea, Orientatzailearekin elkarlanean eta talde-gelan eragina duten beste eragile batzuekin koordinatuta.

Halaber, orientatzailearen eta/edo aholkulariaren laguntza izango du, ikasleen aniztasunari erantzuten laguntzeko eta erantzungo diola bermatzeko, bai eta tutoretza-lana berritzeko eta etengabe hobetzeko ere.

Tutoretza-planak taldean tutoretza-orduan garatu beharreko curriculumeko orientazio-edukiak antolatzen ditu. Horrez gain, tutorearen esku-hartzea sistematizatzen du, ikasleen banakako eta taldeko jarraipeneko hainbat eremutan, familiekin izan beharreko harremanetan, eta irakasleekin eta kanpoko beste eragile batzuekin dagoen koordinazioan.

Hortaz, tutoretzan ikasketa-prozesuak daude, eta, hori dela-eta, bere edukiak ditu. Eduki horiek gaikako lau multzotan jaso daitezke, eta etapan zehar garatuko dira. Gaikako lau multzo horiek hauek dira: garapen pertsonala, besteeiko harremanak, lanbide-orientazioa eta ikasketa-prozesuak. Laurek hezkuntza-orientazio lotura zuzenagoa duten oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen dute. Multzo bakoitzeko gaiak edo edukia aldatu egingo dira etapan zehar.

Bizitzan beharrezkoak diren gaitasun horiek eskuratzen laguntzeko ardura irakasle-talde osoarena da, baina, batez ere, tutorearena. Beraz, ikasketa prozesuan eta bizitzaren garapenaren prozesuan ikasleari laguntzea da tutorearen zeregin nagusia. Oinarrizko gaitasun horiek lortzea da hezkuntza helburua, eta helburu hori da prozesuaren gida.

Alor tradizionaletan bezala, tutoretzan eta orientabidean ere ebaluazio irizpideak identifikatu dira. Irizpide horiek gaitasunak eskuratzen doazela egiaztatzeko balioko diete ikasleei eta tutoreari.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



Laburki esanda, Tutoretza, guraso, irakasle eta ikasleekin egindako bilera edo elkarrizketen bidez (bakarka zein taldean), ikasleen martxa akademikoa, pertsonala eta soziala finkatzeko aurrera eramaten dugun prozesua da. Gogoeta, ekintza eta ebaluazio-prozesu nagusi honetan Hezkuntza Komunitate osoaren elkarlana ezinbestekotzat jotzen dugularik.

## 2. TUTORETZA-PLANAREN ATALAK

Ikastetxeko tutoretza-planak atal hauek izango ditu, gutxienez:

- Ikasleen beharrak kontuan hartuta, tutoretzatik lortu nahi diren helburuak gaitasunak, eta edukiak.
- Eremu bakoitzean tutoreari dagozkion ekintzak: ikasleei, irakasle taldeari, familiei eta beste hainbati zuzenduak.
- Ekintza horien plangintza, ikasturtean zehar.
- Plana bera ebaluatzeko irizpideak.

## 3. TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

**Europako Parlamentuak** funtsezko zenbait gaitasun ezarri zituen **2005ean**, erreferentzia-esparru gisa. **Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum (Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den curriculum)** ezartzen duen Dekretuan honela zehaztuta daude gaitasun horiek:

- a) Gaitasuna kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasun-kulturan
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna**
- c) Matematika-gaitasuna
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- e) Gaitasun digitala eta informazioaren trataerarako
- f) Gizarte- eta hiritar-gaitasuna**
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**

Gaitasun horien eraikuntza diziplina arteko eraikuntzat hartu behar da, eraikuntza globalizatutzat. Aurretik esan dugun bezala, tutoretzak berariaz landuko ditu gaitasun horietako batzuk.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



Hauek nabarmentzen ditugu:

- **Ikasten ikasteko gaitasuna:** ikasten hasteko eta gero eta eraginkorrago eta autonomoago ikasten jarraitzeko trebetasuna da, bakoitzaren helburuak eta beharrak kontuan hartuta. Norberak dakienaz eta ikasi behar duenaz jabetzea esan nahi du, ikasteko erak eta erabiltzen dituen baliabide eta estrategiak zein diren ohartzea. Bakoitzak bere ikasketa antolatu eta denbora eta informazioa kudeatu behar du. Ikasten ikasteko, norbere esperientziak aprobetxatzen jakin behar da funtsean, eta jarrera kritikoa hartu behar da, arazoak hautemateko eta konpontzeko moduaren arabera.

Bakoitzak bere portaera aztertzeko, arazoen iturriak identifikatzeko eta behaketak aktiboki aprobetxatzen jakiteko gai izan behar du.

- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna** sormenarekin, berrikuntzarekin, arriskuak hartzearekin eta proiektuen plangintza egiteko eta kudeatzeko trebetasunarekin lotuta dago. Ekintzaile izaten ikasteko gaitasunak irudikatzeko, gauzei ekiteko eta banakako edo taldeko ekintzak edo proiektuak sormenez, konfiantzaz eta arduraz garatzeko eta ebaluatzeko gai izatea eskatzen du, jarrera kritikoz, alde batetik norbere buruarekin, hobetzen joateko, eta testuinguruarekin, testuingurua ere hobetzeko. Egoerak aztertzeko, aukerak baloratzeko eta egokiena aukeratzeko ahalmena eskatzen du, egindako aukerarekin lan egiteko eta jarritako helburua lortzeko. Pertsona eta kultura arteko gaitasunek eta gizarte- eta hiritar-gaitasunek mota guztietako portaerak dituzte barruan. Gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez eta konstruktiboki parte hartzeko prestatzen dituzte ikasleak, batez ere, gero eta aniztasun handiagoa duten gizarteetan. Gatazkak gainditzeko eta/edo egoera arazotsuei aurre egiteko ere balio dute.
- **Gizarte- eta hiritar-gaitasunaren** garapenaren gakoetako bat, elkarrekin bizitzen ikasteko erreferentzia-ardatzari lotuta dago, eta interes orokorreko egoerak sortzea da gako hori. Lankidetzak, gizarte-gaiei bai sozial arloko gaiei bai gure ingurumen hezkuntzarekin loturiko gaiei edo gai akademikoei buruzko eztabaida edo kritika eta bizikidetzak arauak eskatzen dituzte egoera horiek. Gelako kide guztiak aktiboki integratzea, Ikastolan dauden desberdintasunak onartzea eta taldean ikasle berriak sartzea gaitasun hori garatzen lagunduko duten gertaerak dira. Tutoretzak berriaz lan egiten du gaitasun horiek garatzeko, eta, horrez gain, alor guztietako hezkuntza-gaitasun komunak koordinatzeko, dinamizatzen eta sinergiak sortzeko ardura du, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin elkarlanean arituta.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



Konpetentzia orokor hauek etapa bakoitzean **arloko konpetentzia hauetan** gauzatzen dira.

### HH-n garatu beharreko arloko konpetentziak

- ✓ Ikasgelako eta ikastetxeko bizitzan parte hartzea elkarbizitza-arauak errespetatuz eta funtzionamenduarekin lotutako ekintzetan eta erabakietan inplikatur, portaera arduratsuak, errespetuzkoak eta kritikoak garatzen joan dadin. **(f)**
- ✓ Ingurukoak aintzat hartzea, komunikazioaren bidez jolasteko, lan egiteko... bizitzeko. **(f)**
- ✓ IHPko baloreak ezagutuz eta jabetuz, hauekin bat datozen jokabideak sortu, balore horiek integratzeko (berek egiteko). **(f)**
- ✓ Hausnarketa egitea, lan azturak, esfortzua eta errendimendua ebaluatuz, ondo egindako lanaren balorea integratzen joateko. **(b) (h)**
- ✓ Auto-estimua garatzea, nor bere buruaren ezagutzatik abiatuz, pertsona sendoa izateko eta egoerei aurre egiten jakiteko. **(h)**
- ✓ Eguneroko bizitzako esperientzia eta egoera desberdinetan egon daitezkeen aukerak kriterioz aztertzea eta baloratzea erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartu ahal izateko. **(f) (h)**

### LHn garatu beharreko arloko konpetentziak

- ✓ Ikasgelako eta ikastetxeko bizitzan parte hartzea elkarbizitza-arauak errespetatuz eta funtzionamenduarekin lotutako ekintzetan eta erabakietan inplikatur, portaera arduratsuak, errespetuzkoak eta kritikoak garatzen joan dadin. **(f)**
- ✓ Ingurukoak aintzat hartzea, komunikazioaren bidez jolasteko, lan egiteko... bizitzeko. **(f)**
- ✓ IHPko baloreak ezagutuz eta jabetuz, hauekin bat datozen jokabideak sortu, balore horiek integratzeko (berek egiteko). **(f)**
- ✓ Hausnarketa egitea, lan azturak, esfortzua eta errendimendua ebaluatuz, ondo egindako lanaren balorea integratzen joateko. **(b) (h)**
- ✓ Auto-estimua garatzea, nor bere buruaren ezagutzatik abiatuz, pertsona sendoa izateko eta egoerei aurre egiten jakiteko. **(h)**
- ✓ Eguneroko bizitzako esperientzia eta egoera desberdinetan egon daitezkeen aukerak kriterioz aztertzea eta baloratzea erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartu ahal izateko. **(f) (h)**



# TUTORETZA EKINTZA PLANA

## Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



### DBHn garatu beharreko arloko kompetentziak

- ✓ Nork bere buruaren ezagutzea eta errealitate soziolaborala hausnartzea, bere etorkizuneko proiektu pertsonala, ahalmenen eta balioen arabera, zehaztu ahal izan dezan. **(h)**
- ✓ Nork bere irudi positiboa garatzea, esperientzia propioak eta ingurukoenak alderatuz, pertsona orekatua izateko. **(f) (h)**
- ✓ Bere balioak eta ingurukoak (pertsonak) aintzat hartuz eta elkarrizketa eta kooperazioa oinarri izanik, erabaki arduratsuak hartzea, sozializazio egokia lortzeko. **(f) (h)**
- ✓ Ikasgelako eta ikastetxeko bizitzan parte hartzea elkarbizitza-arauak errespetatuz eta funtzionamenduari lotutako ekintzetan eta erabakietan inplikatur; herritar arduratsu, adeitsu eta kritiko gisa jokatzeko. **(f) (h)**
- ✓ "Ondo egindako lana"ren balioa eskuratzea, bere lan-azturak, egindako ahaleginak eta eskola-errendimendua ebaluatuz, etengabeko hobekuntza lortzeko. **(b)**
- ✓ Elkarlana baloratzea, komunikazioa eta partekatze-proiektuak landuz talde-lanetara ohitzeko. **(f) (h)**
- ✓ Kriterioa izatea eta, baita ere, jarrera proaktiboa, IHPko baloreak identifikatuz eta bereganatuz (integratur), hauekin bat datozen jokabideak sortzeko eta izateko. **(f) (h)**



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



#### 4. HIRU TUTORETZA ESPAZIOEN DEFINIZIOA

Tutoretza-planaren barruan jasota daude tutoreak ikasketa- eta hazkunde prozesuan eta heldutasun pertsonaleko prozesuan ikasleei jarraipena egiteko eta laguntzeko egiten dituen zereginak.

**Tutorearen zeregin horiek guztiak** ondo zehaztutako **hiru jarduera-eremu hauetan** garatzen dira:

**1. eremua: Zuzenean ikasleekin garatu beharreko ekintzak, bai taldean, bai banaka ere.**

Ikasle guztiei arreta berezia eskainiko zaie, haien guztien arteko desberdintasunak onartuz (hezkuntza premia bakoitzari bere erantzuna emanez, kultur aniztasuna kontuan hartuz...). Beraz, erantzun egokia emateko, tutoretza saioak bakarkakoak zein taldekoak izango dira.

Tutoreak ikasleen laguntzarekin eta jarraipenarekin lotura zuzena duen ekintza garatzen du, bai banaka, bai taldean. Tutorea da ikasle bakoitzaren jarraipen osoaren eta laguntzaren arduraduna, ikasle bakoitzak bere proiektu pertsonala eraiki dezan.

**2. eremua: Irakasleekin banaka eta gelako irakasle-taldearen parte gisa garatu beharreko ekintzak.**

Tutorea da **irakasle-taldearen koordinatzailea**; hau da, ikasle-talde beraren hezkuntza-jardunean eragina duten irakasle guztien ekintzen koordinazioaren arduraduna da.

Gutxieneko edukiak finkatu eta plangintza zehaztea da Orientazio departamenduaren zeregina; hala ere, aintzat hartuko da tutore bakoitzaren autonomia, bai metodologian, bai gai berrietan, beharren arabera bideratzeko. Koordinazio saioetan (ziklo bileretan), aldaketen berri eman eta tutoretzak duen martxa zein den baloratuz joango da.

Eremu horren barruan Orientazio Departamendu eta irakasle taldeko esku-hartzeak ematen dira. Hauen artean, irakasle taldeen bileren koordinazioa, ebaluazio-saioen koordinazioa, banakako ekintzak irakasle-taldeko partaide bakoitzarekin (adibidez, bere taldeko ikasleen banakako edo taldeko egoerei buruzko elkarrizketak irakasle bakoitzarekin..).





## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



### **3. eremua: Ikasleen familiekin eta/edo legezko arduradunekin eta beste gizarte-eragile batzuekin garatutako ekintzak.**

Funtsezko eremua da, ikasleei laguntza eta jarraipen egokia eman nahi bazaie. Gurasoekin harreman baikorra eta koordinatua izatea ezinbestekoa da. Ikastola komunitatearen partaide guztien lan komuna izan behar du hezkuntzak. Hori aurrera eramateko, ikasturtean zehar finkatuko diren bakarkako eta taldeko harremanak izango ditugu familiekin nahiz legezko arduradunekin, bai eta egoerak halaxe eskatzen duen guztietan ere.

Halaber, eta lan bateratuaren mesedetan, familiarekin ez ezik, gizarte zerbitzuekin-eta (psikiatrak, sendagileak, harrerako pisuetako hezitzaileak...) ere banakako koordinazioa eta jarraipen sistematikoa egingo dugu, haiekin ere bilerak eginez.

## **5. TUTORETZA ESPAZIO BAKOITZEKO HELBURU OROKORRAK**

Zeregintzat hartzen da zenbait lanekin lotutako eginbeharra. Atal honetan, tutoretza-lanarekin lotutako hezkuntza-eginkizunak aipatuko ditugu; hau da, hezitzailearen eginkizunak. Jarduerak aipatzean, funtzio jakin bat betetzen laguntzen duten ekintza zehatzagoak adierazi nahi ditugu.

Tutorearen zeregin guztiak bakar batean laburbildu ditzakegu: ikasle bakoitzaren eta talde osoaren ikasketa- eta heldutasun-prozesuari jarraipena eta laguntza ematea. Izan ere, zuzenean ikasleekin egiten dituen ekintzak eta irakasleekin, familiekin eta kanpoko zerbitzuekin egiten dituenak funtsezko zeregin hori lortzeko egiten ditu.

Eremu bakoitzean tutoreek beteko dituzten zereginak gehiago zehazteko, tutoretza-planaren garapenean tutorearen eginbeharra osatzen duten zereginak deskribatuko ditugu jarraian:

### **1.- Ikasleei lotuta:**

- ❑ Ikastetxean eta lagun-taldean ondo integratzen laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezatela bultzatzea.
- ❑ Unerik larrienetan ikasleei aholkuak ematea: ikastetxe berrian sartzean, hezkuntza-ziklo edo -etapa aldatzean, hautazko ikasgaiak aukeratzean, lan-mundura igarotzean...
- ❑ Ikasketei begira eta lanbide arloan informazioa eskuratzea erraztu eta erabakiak hartzeko ikaskuntza egoerak sortaraztea ikasleen auto-orientazioa bultzatuz.



# TUTORETZA EKINTZA PLANA

## Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



- Ikasleen ikasketa-prozesuen jarraipen orokorra egitea, hezkuntza-erantzun eta/edo laguntza egokiak emateko.
- Ikasleen eskaerak, kezak, keak... bideratzea, eta, taldeko ordezkariarekin eta ordezkariordearekin lankidetzan, gainerako irakasleen eta zuzendaritza taldearen aurrean bitartekotza egitea, sortzen diren gaietan.

## 2.- Ikasle-taldea irakasleei – Orientazio Zerbitzuari lotuta

- **Tutoreak orientatzailearen laguntzarekin** bere taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan.
- Ebaluazio saietatik at, tutoreek etapa bileretan, gurasoekin hitzartzen diren bileretan eta kanpoko zerbitzuekin ditugun bileretan informazio bilketa ere burutuko dute.
- Tutoretza-plana jakinaraztea, adostea eta garatzea, planetik sortzen diren jardueretan esku hartzea eta elkarlanean aritzera bultzatuz.
- Ikasleen ezaugarri buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei, eta programazioan, ebaluazioan eta hezkuntza-harremanean duten inplikazioa jakinaraztea.
- Bere taldeko ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta ebaluazio prozesua egiteko saioak antolatzea eta saioen buru izatea.
- Curriculumaren egokitzapenetan laguntzea: curriculum-egokitzapenak, hezkuntzan berriaz esku hartzeko proiektuak, curriculum-aniztasuneko programak, premia bereziak dituzten ikasleentzako errefortzu-jarduerak eta haien hezkuntzan esku hartzeko jarduerak.
- Ikasleen ikasketa-zailtasun orokorrenei erantzutea, eta, ahal izanez gero, aurre hartzea, programazioari beharrezko egokitzapenak eginez, eta banakako hezkuntza-premiei ere erantzutea, horrela, beharra ikusiz gero, curriculum-egokitzapena egiteko.
- Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta, irakasle-taldearen aholkularitzarekin, eskola-orientazioko banakako txostena egitea, familiak jakinaren gainean jartzeko eta ikasleak orientatzeko. (Txosten hori behin egingo da gutxienez Lehen Hezkuntza amaitzean, bai eta aparteko egoerak gertatzean ere; besteak beste, zikloa edo maila ez gainditzean. Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira. Lehen Hezkuntza bukatzean egingo den banakako



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



txostenak alderdi hauek erakutsiko ditu, gutxienez: ikasketak eskuratzeko maila —batez ere, ikasle bakoitzaren hezkuntza aurrerapenean eragin handiena dutenak eskuratzeko maila— eta banakako arreta bermatzeko garrantzitsutzat hartzen diren gainerako alderdiak ere). 23. artikulua, Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumaren Dekretua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, tutoreak eskola-orientazioko banakako txostena egingo du, irakasle-taldearen aholkularitzarekin, aukeren hautaketan familiei informazioa emateko eta ikasleei orientatzeko. (Txosten hori behin egingo da gutxienez etapa amaitzean, bai eta aparteko egoerak gertatzean ere; besteak beste, maila ez gaintitzean. Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lanbide Prestakuntzako Hastapeneko Programa amaitzean, txostenak orientazioa eman beharko dio ikasleari, ikasketa- eta lanbide-arloan izango duen etorkizunari buruz). 23. artikulua, Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumaren Dekretua.

- Irakasgaien estatistikak eta ikasketa Buruak eskatzen dituen datu guztiak betetzea, bai eta tutoretza-lanetik sortutako ikasleen ikasketa-agiriak ere.

### **3.- Familiei eta/edo legezko tutoreei eta beste gizarte-eragile batzuei lotuak:**

- Ikastetxearen eta hezkuntza-etaparen berri ematea gurasoei eta/edo legezko tutoreei.
- Banakako hezkuntza-prozesuaren jakinaren gainean jartzea, eta lankidetzat eskatzea.
- Familiak eman dezakeen informazioa jasotzea, ikaslea eta haren familia testuingurua hobeto ezagutzeko.
- Gurasoei aholkularitza ematea; besteak beste, alderdi hauetan: ikasketa eta portaera-arazoaren konponketan, ikasketen antolaketan eta plangintzan, eta ikasketa- eta lanbide-arloko erabakiak hartzeko garaian.
- Seme-alabak irakaskuntza-jardueretara azaltzen diren eta jardueretan parte hartzen duten jakinaraztea ikasleen gurasoei eta legezko tutoreei, eta haren hezkuntza-prozesuaren berri ematea.
- Ikastola-jarduerekin lotutako gai guztiei buruzko informazioa ematea ikasleei, haren gurasoei eta/edo legezko tutoreei, haiek irakasleengana edo ikastetxeko aginte-organoetara jotzeko duten eskubidearen kalterik gabe. Tutorearen asteroko bisitaren ordutegia jakinarazi beharko die ikastetxeak familiei.

Familien parte hartzea bultzatzea ikastetxean.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## 6. TUTORETZAREN HELBURU OROKORRAK

### HAUR HEZKUNTZAN

Etapa honetan era globalizatuan, landuko diren jardunguneak:

- Osasunerakok Hezkuntza.
- Giza eskubide eta Bake Hezkuntza.
- Ingurumen Hezkuntza.
- Hezkidetza.
- Kontsumo Hezkuntza.
- Bide Hezkuntza.

### LEHEN HEZKUNTZAN

Lege berriarekin, hau da LOErekin, Orientabidea eta Tutoretzaren helburutzat, Lehen Hezkuntzako etapan garatu beharreko gaitasun hauek identifikatu ditugu:

1. Gelako bizitzan parte hartzea, jardueretan eta gelako funtzionamenduari buruzko erabakietan esku hartzea, bizikidetza-arauak errespetatzea, arduraz, errespetuz eta jarrera kritikoz jokatzeko.
2. Inguruko pertsonekin harremanetan jartzea, eta pertsona horiei laguntzea, entzutea eta haiekin komunikatzea, besteak aintzat har ditzan, eta besteekin jolasteko, ondo pasatzeko eta lan egiteko gai izan dadin.
3. Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerez jabetzea, aniztasuna onartzea eta errespetatzea, justizia-, berdintasun-, bake- eta elkartasun-balioekin bat etor dadin bere portaera, kultura arteko gizartean.
4. Gizartearen eta ingurumenaren arteko harremanak hobetzea eta bizi-kalitatearen eta ingurumen-kalitatearen arteko oreka dinamikoa sortu edo eusteko, bakarka edo taldean esku hartzea hiritar aditu eta arduratsua izan dadin.
5. Jarrera irekiarekin hausnartzea Ikastola-jarduerak egiteko duen moduari eta egiten duen ahaleginari buruz, ikasleak bere eskola-errendimendua ebalua dezan eta behar duen laguntza onar dezan, eta, horrela, ondo egindako lana aintzat har dezan.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



6. Bere buruaren ezagutza aztertzea, auto-estimua egokia garatzeko eta segurtasunez aurre egiteko egoera berriei.
7. Irizpideak erabiliz aztertzea eguneroko bizitzako esperientziak eta gatazka egoerak, eta aukerak baloratzea, erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartu ahal izateko.

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1. Nork bere buruaren ezagutza aztertzea eta errealitate sozio-laboralari buruz autonomiaz hausnartzea, bere etorkizuneko proiektu pertsonala bere ahalmenen eta balioen arabera zehaztu ahal izan dezan.
2. Norberaren esperientziak aztertzea eta egiaztatzea eta bere inguruko pertsona garrantzitsuak baloratzea, bere buruaren irudi positiboa, bere buruarekiko konfiantza eta eraginkortasuna lortzeko.
3. Bizitzako esperientziak eta bere nahiz gizarteko gatazka-egoerak irizpidez aztertzea; horrez gain, hainbat aukera baloratzea, elkarriketa oinarri hartuta erabaki arduratsuak hartzeko, besteekin eraikitzeko eta bere balioekin eta pentsaerarekin koherentea izateko.
4. Gizartearen eta ingurumenaren arteko harremanak hobetzea eta bizikaltatearen eta ingurumen-kaltatearen arteko oreka dinamikoa sortu edo eusteko, bakarka edo taldean esku hartzea hiritar aditu eta arduratsua izan dadin.
5. Ikasgelako eta ikastetxeko bizitzan gogo biziz parte hartzea, eta, elkarbizitza-arauak errespetatzeaz gain, bertako funtzionamenduekin lotutako ekintzetan eta erabakietan inplikatzeko; horrela, herritar arduratsu, adeitsu eta kritiko gisa jokatu du.
6. Jarrera irekia mantenduz, Ikastola-jarduerak gauzatzeko moduari eta egindako ahaleginari buruz hausnartzea; horrela, bere eskola-errendimendua ebaluatu eta beharrezko dituen hobekuntzak sartuko ditu, eta, horrez gain, ondo egindako lana baloratuko du.
7. Inguruko pertsonekin elkarlanean ikuspegi sortzailez aritzea, eta beste pertsonen bidez bere pentsamendua eraikitzeko, ideiak eta esperientziak partekatzeko, taldean lan egiteko eta komunikazio-sareak ezartzeko duen beharra baloratzea.
8. Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerekiko kritiko agertzea eta aniztasuna onartzea eta errespetatzea; horrela, kultura arteko gizarte honetan, bere portaera bat etorriko da justizia-, berdintasun-, bake- eta elkartasun-balioekin.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## 6.1 ORIENTAZIO-ARLOAREN EDUKI MULTZOAK

Pertsona bati banako pertsona gisa eta, aldi berean, gizarteko kide gisa hazi al izateko baliabideak edo bitartekoak ematea da heztea. Ikastetxeak ikasleen gaitasunak garatzen lagunduko du, banakako desberdintasunak abiapuntu hartuta.

Hori dela-eta, tutoretza ikasketa-prozesu bat da, eta garatzen ditugun orientazio gaiak ikastetxeko eremuetan edo testuinguruetan agertu behar dute, ikasleek ikasketa esanguratsua izan dezaten. Gai horiek guztiak multzo hauetan bil daitezke:

### LH:

#### 1. Garapen pertsonala

Hazkuntza pertsonalarekin, erabakiak hartzearekin eta bizitzan zehar proiektu pertsonala egitearekin lotutako edukiak sartzen dira multzo honetan.

#### 2. Genero Ikuspegia

Ikasle guztiak dituzte aukera, eskubide eta betebeharrak berdinak. Berdintasun printzipioaz abiatuz, alde batera utzi nahi ditugu gizarteak historikoki eta era hierarkiko batean, emakume eta gizonezkoen esleitzen dizkieten rola, sinbolo eta baloreak.

#### 3. Besteekiko harremanak: komunikazioa, talde-lana eta gatazken konponketa

Giza taldeen funtzionamenduarekin, elkarlanarekin, lankidetzarekin eta gatazken azterketa eta konponketarekin lotutako kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak daude jasota multzo honetan.

#### 4. Ikasketa-prozesuak

Oro har, eskola-errendimendua optimizatzen duten gaitasunekin, ikasketa tekniken aplikazioarekin eta meta-kognizio estrategiekin lotutako edukiak dira.

#### 5. Lanbide-orientazioa

Ibilbide pertsonalarekin eta lanbide-ibilbidearekin lotutako erabakiak hartzearekin du zerikusia eduki honek, norbere buruaren eta lan-munduaren ezagutza abiapuntu hartuta.



# TUTORETZA EKINTZA PLANA

## Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## DBH:

### 1. Garapen pertsonala

Hazkuntza pertsonalarekin, arazoei aurre egiteko ahalmena hobetzearekin, erabakiak hartzearekin eta bizitzan zehar proiektu pertsonala egitearekin lotutako edukiak sartzen dira multzo honetan.

### 2. Genero Ikuspegia

Ikastolako helburuen artean sexu berdintasun printzipioa dugu adierazita. Bertan gure ikasleen arteko genero ezberdintasunak desagertzea eta aukera berdinak ematea dugu erronka. Ikasle guztiek dituzte aukera, eskubide eta betebeharrak berdinak.

Berdintasun printzipioaz abiatuz, alde batera utzi nahi ditugu gizarteak historikoki eta era hierarkiko batean, emakume eta gizonezkoen esleitzen dizkioten rola, sinbolo eta baloreak.

Gaur egungo gizarteak arlo guztietan duen genero harreman desorekari aurre egiteko gure ikasle guztiak berdintasun printzipioan heziko ditugu balore, eskubide eta aukeretan.

Hori guztia aurrera eramateko;

- ✓ Emakumezkoen eta gizonezkoen paperen irudi tradizionalak aldarazten saiatuko gara, emakumearen bizitza familiarreko, profesionaleko eta publikoko partaidetzaren irudi berri eta positiboak sortuz. Horrek hiru alderdi ditu:
  - Hizkuntza eta hezkuntza baliabideetan azaltzen diren emakumei buruzko aurreiritziak baztertu eta ezabatu behar dira,
  - Emakumei buruzko irudi berria zabaldu behar da eskolan, jarduera berberetan elkarrekin integratuz,
  - Heziketaren bidez, eraso diskriminatzaileez (etxeko bortizkeria, soldata berdintasuna, rol bereizketa...) jabetu behar dute ikasleek.

### 3. Lanbide-orientazioa

Eskolatzeko-prozesuak aurrera egiten duen heinean, ikasleak bere ikaskuntza ibilbidearekiko eta lanbide-etorkizunarekiko hartutako erabakiek gero eta garrantzi handiagoa izango dute; erabaki horiek hartzeko, hain zuzen, nork bere buruaz eta lan-munduaz duen ezagutza hartuko da oinarri.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



#### **4. Besteekiko harremanak komunikazioa, talde-lana eta gatazken konponketa**

Giza taldeen funtzionamenduarekin, elkarbizitza-arauekin eta gatazken azterketa eta konponketaekin lotutako kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak daude jasota multzo honetan.

#### **5. Ikasketa-prozesuak**

Oro har, eskola-errendimendua, agenda-erabilera, lankidetzeta-taldeak, ikasketa-tekniken aplikazioa eta meta-kognizio estrategiak optimizatzen dituzten gaitasunekin lotutako edukiak dira.

**Eduki multzo bakoitzean landu beharreko edukiak eta materialak geletako programazioetan txertaturik ditugu. Hauen erregistroak, urtero Orientatzailea jasotzen ditu.**





## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## 7. TUTORETZAREN ANTOLAKETA: HELBURUAK LORTZEKO ILDO NAGUSIAK

### 7.1 Oinarrizko puntuak

- Ikasle-talde bakoitzak bere tutorea izango du. Irakasle horrek arloko erantzukizunak izateaz gain, taldeko tutore lana egingo du, eta bere ikasleen jarraipenaz arduratuko da, bakoitzari lagundu eta aholkuak eskainiz. HHn tutoretzak hiru urtekoak dira. LHn eta DBHn bi urteko tutoretzak antolatzen dira. Kasu ezohikoetan, epea labur daiteke.
- Ikasle, irakasle eta familiei zuzenduak izango dira tutoreek egin behar dituzten funtzioak eta lanak.
- Tutoreek izan dezaketen beharrak asetzeko eta bideratzeko Haur Arreta eta Babeserako Programan parte hartzen dugu.
- Taldearen kohesioa inoiz alde batera utzi behar ez den alderdia da, edozein unetan sor baitaitezke gelako giroa nahas dezaketen arazoak edo zailtasunak, eta ondorioz, giro egokiago bat sortzea eskatzen dutenak.
- Tutoretza saioetan gehien bat erabiltzen dugun metodologia IKKI programak proposatzen duena da. Programa honetan, hezitzaile-ikasle elkarreraginaz gainera oso kontuan hartzen da ikasle-ikasle elkarreragina, eta hortaz, banakako ahaleginari eta lanari ez ezik talde-lanari ere garrantzi handia ematen zaio.
- Horretarako programaren A esku-hartze eremuko ariketak eramango ditugu aurrera gelako dinamikan. A esku-hartze eremuak taldearen kohesioarekin loturiko jardun guztiak biltzen ditu, pixkanaka, gela bateko ikasleek talde kontzientzia har dezaten eta denborarekin ikasketa komunitate txiki bilaka daitezten. Programa honek gelako giroa hobetzera bideraturiko jarduera-sorta biltzen du (taldeko dinamikak, jolas-kooperatiboak, jarduerak...).

### 7.2 Tutoretzaren programazioa

- Orientazio Departamenduak gutxieneko edukiak finkatuko ditu ikasturtearen hasieran. Ondoren, honela egingo dute tutoreek bilera: LHn, zikloka; DBHn, mailaka. Plangintza zehaztuko da, baina aintzat hartuko da tutore bakoitzaren autonomia, bai metodologian, bai gai berrietan, beharren arabera bideratzeko. HHn haurrentzat zentzua duten egoerak diseinatuko dira eta haurren errealitatean gertatzen diren edo



# TUTORETZA EKINTZA PLANA

## Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



gerta daitezkeen egoerak islatzen dira; unitate didaktiko guztietan daude eta esplizituki adierazten dira.

### 7.3 Tutoretza-planaren jarraipena eta ebaluazioa

- Ikasturtean, maila bakoitzeko tutore-taldeak Tutoretza Planaren garapenaren jarraipena egingo du. Horretarako, txantilo baten laguntzaz, tutoretza saio bakoitza baloratuko da.
- Ikasturtea amaitutakoan, Tutoretza Planaren ebaluazioa egingo da, baita planaren garapenari buruzko amaierako memoria ere. Balorazio hartatik aterako diren ondorioak kontuan hartuko dira, hurrengo ikasturtean egin litezkeen aldaketak eta egokitzapenetarako.



# TUTORETZA EKINTZA PLANA

## Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## 8. TUTORETZAREN KOORDINAZIOA ETA ARDURADUNAK

1. Ikasketa Burua
2. Ikastetxeko Orientatzailea
3. HHko, LHko eta DBHko tutoreak.

### Bilerak

- Orientatzaileak bilera horiek koordinatuko ditu.
- Ikasturtearen hasieran, etapa bakoitzean plana aurkeztuko du.
- Hortik aurrera, Tutoretza Planaren koordinazioa ziklo bakoitzean eramango da. Arduradunak bideratu eta zuzenduko ditu bilerak; beharren arabera, irakasleek plangintza programatuko dute. Zikloa hilabetean behin (gutxienez) elkartuko da.
- Ikasturtearen bukaeran, Ikasketa Burua etapa bakoitzera joango da eta azken balorazioa egingo dute guztiek, proposamenak, kezkak... bideratu eta aldatzeko.

## 9. TUTORETZA SAIOAK

### 9.1 Ikasleekiko

Ikaslearen jarraipen indibiduala:

- Ikasle guztiei arreta berezia eskainiko zaie.
- Ikasle guztien arteko desberdintasunak onartu behar ditugu, beraz:
- Hezkuntza-premia bakoitzari bere erantzuna emango zaio.
- Kultur aniztasuna kontuan hartuko da.
- Behartuen aldeko diskriminazio positiboa egingo da.

Elkarrizketa-sistema erabiliko da jarraipen indibiduala egiteko. Ahal duen neurrian, tutoreak ikasleak bakarka hartu eta haiekin hitz egingo du; horretarako, DBHn ostiraleko azken ordua hartzen da, ikasle bakoitzari, premien arabera, behar duen denbora eskainiz.

### 9.2 Ikasle taldearekiko

HHn unitate didaktikoetan zehar txertaturik daude eta ez da une zehatz bat hartzen. LHn eta DBHn astero eskola-ordu bat dugu talde-tutoretza egiteko, eta horretarako Lan Plan espezifikoak egina dago.



# TUTORETZA EKINTZA PLANA

## Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



Tutoretzako gai multzo hauek hiru helburu nagusitan oinarrituko ditugure Lan Planak:

- A. Ikasleak taldearen barruan sartzen erraztea eta haiengan parte hartze jarrerak sustatzea.
- B. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak pertsonalizatzea eta haien jarraipena bultzatzea.
- C. Beren etorkizunerako erabakiak hartzeko gaitasuna erraztea.

Helburu hauek ez ditugu bakarrik talde-tutoretzan lantzen, eremu guztietan baizik: Talde-tutoretzan; ikasle bakoitzarekin, gurasoekin eta irakasle- taldearekin.

### 9.3 Familiekiko harremanak

Hiru motatako bilerak izango dira:

#### 9.3.1 Gelako bilerak

Kurtsoan zehar bi guraso bilera antolatzen ditugu. Lehenengoa urrian eta bigarrena otsaila eta martxo artean. Lehenengo bilera HHn eta LHn gelaka eta DBHn mailaka burutzen dira. Bilera honen helburuak:

- Kurtsoko helburu orokorrak azaltzea.
- Ikastolako egiturak eta antolakuntza aurkeztea.
- Irakasleak eta arloak aurkeztea

Helburu hauek bilera horretan banatzen den urteko GIDAn oinarriturik dago . Guztira 6 GIDA desberdin banatzen ditugu: HHn bi (Haur Ikastolaz 0-3 eta Haur Hezkuntza 3-6), LHn hiru (zikloka) eta DBHn bakarra. Gidan honako informazioa azaltzen da:

- Egutegia eta ordutegia
- Ikastolako antolaketa: Batzordeak, Irakasleak eta langileak, Antolakuntza.
- Ikasturteko Plangintza Orokorra
- Etapako Helburu Pedagogikoak
- Jaialdi eta Ekintza Bereziak



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)  
[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



- ❑ Irteerak
- ❑ Oharrak
- ❑ Ikastolaz Kanpoko ekintzak
- ❑ Batzordeak

Bigarren bilera, aldiz, gelaka soilik eramaten da aurrera eta bertan maila bakoitzari buruzko dinamikaren inguruan izanen da. Bigarren bilera horretan beste asunoen artean, beti LHn eta DBHn egin beharreko irteeraren inguruan hitz egiten da.

### 9.3.2 Bakarkako elkarrizketak

Tutore bakoitzak asteartetan bi ordu izanen du bere egutegian ikasle bakoitzaren gurasoekin harremanak izateko. Kurtso hasieran tutoreak ordu horiek ezagutaraziko die gurasoei. Bilerak eguerdiz edota arratsaldean izan daitezke. Kasu berezitan bilera eguna alda daiteke. Kurtsoan zehar gutxienez bi egingo dira baina, premien arabera, batzuekin maizago.

Gurasoek orientatzailearekin egon nahi dutenean, tutorearen bitartez eskatuko dute ordua.

Ikastolak ikasle baten gurasoak deitzen dituztenean, biok (aita eta ama) etortzea gomendatzen da. Bikotea bananduta badago, Ikastolak ikaslearen zaintza daukanari bidaliko dio deia. Informazioa biei bidaliko zaie beraiek horrela eskatzen badute.

**Senar-emazteen arteko bereizketak dakartzan gatasketan ikasleari buruzko informazioa epailearen aginduz bakarrik emango da.**

### 9.3.3 Gurasoentzako hitzaldiak

Bilera hauek ikastetxeko ikasle guztien gurasoentzat antolatuko dira. Ez dira urtero antolatuko. Batzuk Gurasoen elkartearekin planifikatuko dira besteak (tabakoa, AGIPAD, elikadura...) Ikastola berak antolatuko ditu.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



## 10. TUTORETZA-PLANAREN EBALUAZIOA

Tutoretza-planaren ebaluazioa egiteko, irizpide orokor hauek erabiliko dira, besteak beste:

- ❑ Zer gaitasun-maila lortu dute, ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera.
- ❑ Edukien garrantzia.
- ❑ Jardueren egokitasuna, gaitasunak eskuratzeko.
- ❑ Ikasle taldearen eta familien parte hartzea.
- ❑ Hauek izango dira baloratu beharreko adierazleak:

### 2016-2017 BALORAZIOKO ADIERAZLEAK

#### OROKORRAK

1. Ikasle guztien heziketa eta ikaste-irakaste prozesuaren jarraipena egin da.
2. Tutoretza saioetan lantzeko plana eta materialak prestatu dira.
3. Irakasle guztiek Tutoretza Plana ezagutzen dute.
4. Tutoretza Ekintza Plana eguneratu da.
5. Tutoretza planak Orientatzaileekin koordinatu dira.
6. Tutoreek ikasleen jarraipen sistematikoa burutu dute.
7. Tutoreek bere lana aurrera eramateko baliabide nahikoak izan dituzte.
8. Tutoreek bere Tutoretza lana hobetzeko Plangintza Pertsonala burutu dute.
9. Tutoreek denbora eskaintzen dute ikasleei arreta pertsonala emateko.
10. Tutoreek laguntza eta Orientazio Departamenduarekin batera HPBko ikasleen programak egokitu dituzte.
11. Tutoreek laguntza eta orientazio Departamenduarekin batera HPBko ikasleen jarraipena egin dute.
12. Irakasleek Haur arreta eta babeserako programan parte hartzeko aukera izan dute.
13. Zuzendaritzak ikasturtearen hasieran gelako gurasoei dei egin die bilera orokorrera.
14. Guraso bilerarako gai ordena eta gida prestatu dira eta akta jaso da.
15. Tutoreek Guraso bileretan akta jaso dute.
16. Tutoreek gutxienez gelako bi bilera orokor eta bakarkako bi bilera egin dituzte gurasoekin.
17. Ikasturtean zehar hiruhilabetero informe idatzia bidali zaie gurasoei.



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



18. Ikasturtearen amaieran Ikasketa Buruak emaitzen laburpena zuzendaritzan azaldu ditu.
19. Tutoreek Ebaluazio Bileretan taldeko ebaluaketaren garapena jarraitu dute eta promozioaren inguruko erabakiak hartu dituzte
20. Asistentzia eta diziplina falten kontrola eraman da eta gurasoak eta Ikasketa Burua informatu dira
21. Orientatzailearekin bilera hamabostaldiero burutu dira
22. Adostutako proba psikopedagogikoak pasa dira
23. Adostutako proba psikopedagogikoen emaitzen berri gurasoei eman zaie
24. Egokitzapen kurrikularrak Tutore eta HPBko irakaslearen artean burutu dira
25. Egokitzapen dokumentuak orientatzaileari aurkeztu zaizkio
26. Beste ziklo eta etapakideekin koordinazioa burutu da
27. Gurasoei baimenak eskatu zaizkie (argazkiak, ebakuntzak, ateraldiak..)

### HH

28. Hiru urteko ikasleen uztarketa burutu da.
29. Bost urteko ikasleen frogak burutu dira.
30. Gurasoei frogen emaitza banatu zaie.
31. Urtearen bukaeran hurrengo urteari begira HPB Prebisioa egin da.
32. PTarekin astero biltzeko aukera izan da.
33. Ebaluazio bileretan beste irakasleekin informazioa trukatu da.

### LH

34. Ebaluazio bileretan beste irakasleekin informazioa trukatu da
35. HPB irakasleari pautak eta irizpide batzuk eman zaizkio HPB ikasleei begira
36. HPBko irakasleak tutoreari ikaslearekin egindako lanaren balorazioa eman da
37. Ebaluazio datuak ikasleekin komentatu dira
38. Gurasoei oharrak agendaz edo korreoz bidali zaizkie
39. Kanpo profesionalengana doazen ikasleak beren jarraipena burutu da.
40. Ikasleei kanpo ikastaroak eskaini zaizkie (Bide Hezkuntza, Kontsumerismoa...)
41. Ziklo bukaeran konpetentzi frogak pasa eta erregistratu dira



## TUTORETZA EKINTZA PLANA

### Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

[herriam@ikastola.net](mailto:herriam@ikastola.net)

[www.herriametsa.com](http://www.herriametsa.com)



### DBH

42. Etapa Bileretan ikasleen zuzeneko informazio jaso da
43. Ikasleen jarraipen bileretan Ebaluazio bileretan ikasle bakoitzaz aritu da tutorea
44. HPBko irakaslearekin helburu eta materialen koordinazioa burutu da.
45. Ikasleei kanpo ikastaroak eskaini zaizkie (Sexu Heziketa, Gehitu...)
46. Tutore bakoitzak ebaluazioaren datuak ikasle bakoitzaren aztertu ditu
47. DBH 4. mailan orientazio bilerak ikasle, guraso, tutore eta orientatzailearekin burutu dira
48. Arazo diziplinarioak aurrera eramane eta hauen jarraipena egin da (gurasoak deitu, santsioak ikasleari adierazi...)
49. Irakasle guztiek Bilera pertsonaletarako ikasleen informazioa sartu dute.
50. Ikasgaiko irakasleak bere notak aplikazioan sartu dituzte.